

# Los electos de HB opinan



## Eskerrik asko, abertzale hori

Itziar AIZPURUA

Euskadi aurrera. Euskal Herria irabazien doa. Esta es la realidad de un pueblo en marcha, en pro de su liberación nacional y social, en defensa de su identidad como pueblo diferenciado.

Zenbat aldiz esan dudan ez garela, behar bada, beste herriek baino hobetoagoak. Baina ezta okerragoak ere. Desberdinak gara, zalantzarik gabe. Gure historia dugu, geure hizkuntza, egunen batean, agian laster, nazionala eta ofiziala izango dena. Geure ohiturak ditugu, harremanak eta abar. Gu geuk garela adieraziz.

*Larga historia de nuestro pueblo, humilde y digno, pequeño y gigante a la vez. Defenso, de la libertad de los pueblos, de la solidaridad entre ellos, en la convivencia de las mujeres, hombres y niños que desean y aman la paz, basada en la justicia y la libertad.*

Zenbat negar, odol eta samin jasan duzun, irakurtzen ari zaren abertzale miresgarri hori! Baina zein poztasun ere izango duzun zeure bihotz barnean ikusten duzulako egunetik egunera irabazten ari garela. Lagun, zuri esker, pausorik pauso, gure aberria den lurraldeetan askatasuna lortuko dugu, etsaiak gure herriari lapurtutakoa geureganatzen.

*Pasos importantes de nuestro pueblo que, en su caminar hacia la construcción de su libertad, jalonan la historia de Euskal Herria. Dijiste no a una Constitución española que negaba los*

*derechos fundamentales de los pueblos y que, en definitiva, es negar los derechos de las personas que aman y luchan por la libertad. Y les dijiste que teníamos una patria, que es Euskadi. Y que tú no serías nunca español porque ellos lo quisieran. Y dijiste «no» a esa Constitución española porque es antidemocrática y no acepta el derecho de la autodeterminación de los pueblos, derecho reconocido en la Carta de las Naciones Unidas, y les dijiste que el sistema capitalista es opresor para los derechos de la clase trabajadora y oprimida. Y les dijiste que a ti no te preguntaron por la forma política de Estado que nos fue impuesta: la monarquía. Y que, por tanto, no estabas de acuerdo. Y les dijiste que nuestra lengua nacional no es el castellano, sino el euskara.*

Eta horrela jarraitu duzu, abertzale eta sozialista zaren hori. Bide zuzenetik. Ezetza emanaz kapitalismoaren adar armatuari, OTANi. Abertzaleak eta sozialistak bakearen alde borrokatuko dugula esanaz. Bloke sistemaren aurka eta nazio ez-lerrotuen alde jarririk.

*Y en tu caminar histórico has conseguido que Herri Batasuna sea la única fuerza abertzale y socialista con una gran implantación en Euskadi. Y la has legalizado con tu trayectoria firme, consecuente y decidida a conseguir que Euskal Herria, Euskadi, sea la punta de lanza del movimiento de liberación nacional en el corazón de Europa.*

Zorionak abertzaleoi. Zorionak a la militancia de Herri Batasuna que día a día, en estos ocho años, está entregando en el anonimato lo mejor de sí mismo para que pronto la alternativa KAS sea una realidad. Zorionak bereziki Euskal Herriko gazteei. Zuek bait zarete herri hau altxako duzuenak.

Gure herriak lortu dituen garaipen guztiak, preso, errefuxiatu eta, batez ere, bizitza gure herriaren aske izan dadin eman dutenei eskeintzen diegu. Harezazue, lagunok, apaltasunez, nire amodioz beteriko bizia Euskal Herriaren alde. Gora Euskadi askatua.

## Miraria ez da


Txillardegia

Ezker abertzalea, gora. HB, gora. Euskal Herria ezagutzen ez dutenek ez dute konprenitzen, ezta HB zer den, eta nola mamitu den, oraindik sinetsi nahi ez dutenek ere. Ekainaren 22ko emaitzak, hitz batez, mirari huts iruditzen zaizkio askori.

Hala ere, atzo Bilbon azaldu nuen, horretan guztian miraririk ez dago, hautaturik gertatu garenok ha-

maika lan eta sakrifizioaren ondorioz gertatu bait gara hauiatuak.

Ezker abertzalearen zerbitzutan bizia bera eman dutenak datozkit gogora aurrenik, jakina, baina niretzat hildako horiek ez dira izen abstrakto batzu, ahots eta begirada bana zituzten. Eustakio Mendizabal, eta Gardemia Korta eta Aranguren «Iharrak», eta Jon Goikoetxea (eta Mikel anaia beranduago) eta Gardoki eta Tomás Pérez Revilla, eta Roque Méndez, eta beste mila, noizbait landu eta lagun izanak.



Eta nola ahaztuko, bide beretik, etsaiaren saizuloetan hil diren guda-riak...? Zabalza, Asensio... betirako galduak. Beren jaioterriak urrun bizi diren presoek eta deserriuek ere bultzatu gaituzte honeraino eta badakigu. Nola ez jakingo, eta kontutan hartuko, gartzela eta atzerria geure haragian ezagutu ditugunok?

Horrek guztiak azaltzen du, beraz, HBren arrakasta harrigarria; eta ez maniobra kaskar batek edo bestek.

Baina, baita ere, egunetik egunera, udaletxeetan, arranoetan, euskararen aldeko mugimenduetan, gestoretan, kale-manifestazio arriskutsuetan, sindikato eta alderdi abertzaleetan, ohererik gabe borrokari urte luzeetan barrera eutsi dioten guztien ahaleginak.

Orain dela 30 urte sortu zen ezker abertzalea, Prozesu luze eta lantsu honetan lehen eta orain parte hartu duten guztien organizazioa izan nahi du HBak; horiena, guztiona baita orain bildu dugun fruitua.

Eta gu, noski, atzoz geroztik, denon ahotsa izaten saiatuko gara geure borondatearik hoberenaz.

Lehenagoak gara; ez gara aldatu. Eta ez gara aldatuko. Betiko jarreraren gaude eta egongo gara.

Bazenekiten. Baina berriro gogoraztea ona izan daiteke; mementu haue-tan, batez ere.